

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2024ko AZAROAREN 5a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita laugarren urtean, azaroaren bostean, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2024ko urriaren 29an afixatua izan zen eta 2024ko urriaren 29an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	14	
Bozkatzaileak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre *Betti* jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea. OLÇOMENDY Betti jauna

Ahalordea(k): MOCHO Frantxoa jaunak ahalordea emana zakon CURUTCHARRY Antton jaunari

Bilkurara ezin etorria jakinarazia zuten: MOCHO Frantxoa jauna

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- IEKA eskumenaren aldaketa TE64ri
- Udabiltzaren “Geuretik sortuak” proiektuan parte hartzea
- Berotze sare baten sortzea eta ustiatzea (energia berriztagarria) – kudeaketa-moldearen onartzea
- Euskal Elkargoaren TSPren kapital sozialean parte hartzea
- Lehengo trenbidetik iragaten den Leizpartze-Eiheraldeko desbideratze proiekturako ikerketa abia dadin galdatzea Departamendu Kontseiluari
- Gai orotarik

AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2024ko buruilaren 9ko bilkuraren bilduma onartu du.

1- 2024-61 DELIBEROA- IEKA (Ibilgailu Elektrikoak Kargatzeko Azpiegiturak) eskumenaren eskualdatzea.

9.1 NOMENKLATURA

Baigorriko jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio Mugikortasuna Bideratzeko Legeko 68. artikulua, elkargoei edo erakunde publikoei Ibilgailu Elektrikoak Kargatzeko Azpiegiturak garatzeko gida-eskema (IEKAGE) baten egiteko parada ematen diela.

Dispositibo horrek Herriko Etxeari Lurraldeko Kargatze Azpiegituren garapenean “gidari” eginkizuna ematen dio eskaintza koordinatua kausitzeko obralari publiko eta pribatuen artean, tokiko mugikortasun politikekin koherentea eta erabiltzeen beharrei egokituia.

Ibilgailu Elektrikoak Kargatzeko eskaintzaren garapenaren helburua da azken bost urteetako ibilgailu elektrikoen eta hibridoen salmenten goratze gero eta handiagoa laguntzea.

Segur, publikoari irekiak diren Ibilgailu Elektrikoak eta Hibridoak Kargatzeko Azpiegiturak (IEKA) kargatze guzrien %15-20 baizik ez dira, eta gehienak etxean eginak dira edo lantokian, baina publikoari irekiak diren IEKak funtsezkoak dira erabilera batzuetarako (turismoa, ibiltariak, etab.), erabiltzailea lasaitzeko eta karbono gutiagoko mugikortasunari buruzko trantsizioaren indar orokorra laguntzeko.

Departamendu mailan bereziki, publikoari irekia den IEKA sareak (TE64k kargatzeko 260 gune plantan ezarri ditu Biarnon eta Ipar Euskal Herrian) ibilgailu elektriko edo hibrido kargagarri bat erabiltzea erabaki duten erabiltzaileen beldurren parte bat ezabatu du. Beste faktore batzuek ere esplikatzen dute ibilgailu elektriko edo hibrido kargagarrien erosketaren emendatzea, bereziki autonomiaren hobetzea eta teknologia berrien eraginkortasuna, marka gehienek ibilgailu elektrikoak ateratzea prezio apalagoan, erosteko laguntzak, airearen kalitatea, energia fosilen prezioaren bilakaera eta publikoaren sentsibilizatzea deskarbinizazioaren erronkei buruz.

Pirinio Atlantikoetan, TE 64k du IEKAGE eraman, horretarako 10 hilabetez departamenduko eragile publiko eta pribatuen gainean bermatu da 2023ko azaroan jaun prefetak ontzat eman duen eskema horren obratzeko.

Bistan da, araudiak IEKAGEren edukia zaintzen du, eta honek bere baitan behar du:

Diagnostic bat (lekuaren egoera, beharren bilakaeraren ebaluazioa, kargatze-eskaintzaren garapenaren ebaluazioa, elektrika sareen itxura, etab.);
IEKAREN lehentasuna eta helburuak;
IEKAREN hedatzearen ikusmolde geografikoa eta ekonomikoa;
Ekintzen egutegia;
Segipen eta eguneratze tresna.

Beraz, eskema horren bidez gomendio operazionalak finkatu dira IEKA horiek departamenduan hedatzeko estrategiari begira, erabiltzaileen beharrei ihardesteko urteetan zehar (epemugak 2025ean, 2030ean eta 2035ean), epe laburrean kargatzeko 900 punturen hedapenarekin hasiz.

Orain helburua da orientazio horien gauzatzea beharrezko ekipamenduak hedatuz Biarnon eta Ipar Euskal Herrian, obralaritza publikoen eta pribatuen antolaketa hedapen-estrategiaren erdian izanik.

TE64k departamenduko herrietan baita ENEDISen artean ere egin kontsulten bidez, agertu da departamenduko lur publikoetan instalatzeko IEKAREN eskaintza pribatua

Alta, Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L.2224-37 artikulua arabera, elkargoak IEKA bat "sortu eta mantendu dezake edo sorkuntza, mantenua eta ustiapena barne hartzen dituen zerbitzua plantan ezarri dezake", "eskaintzarik ez baldin bada edo eskasa edo desegokia baldin bada".

L2224-37 artikulua

"Lurraldean eskaintzarik ez baldin bada edo eskasa edo desegokia baldin bada, herriek sortu edo mantendu ditzakete ibilgailu elektriko edo hibridoen edo kaiko ontziak erabiltzeko beharrezkoak diren kargatze-azpiegiturak, baita ere gas edo hidrogeno hornikuntza guneak ibilgailu eta ontzientzat, edo horrelako azpiegituren edo hornikuntza guneen sorkuntza, mantenua eta ustiapena barne hartzen duen zerbitzua plantan ezarri." Ustiapenak ibilgailuen edo ontzien hornitzeko beharrezkoak diren elektrikaren, gasaren edo hidrogenoaren erostea barne har dezake.

Eskumen hori eskualdatu dezakete antolamenduaren, energia-eskariaren kontrolatzeko edo igorpen kutsatzaileak edo berotegi-efektuko gasak murrizteko ekintzen laguntzaren arloan eskumena duten Herriarteko Lankidetzako Erakunde Publikoei; L. 2224-31 artikulua aipatu elektrizitate banaketarako sare publikoa antolatzen duten aginteei; Garraio Kodearen lehen parteko II. liburuko III. paragrafoan aipatu mugikortasuna antolatzen duten aginteei, eta Ile-de-France eskualdean, Ile-de-France Mobilités erakundeari.

Beste lege batzuek aurreikusi kontsultei kalterik egin gabe, elektrizitate edo gas banaketa sare publikoa antolatzen duten aginteak eta elektrizitate edo gas banaketa sare publikoaren kudeatzaileak iritzia emanen dute artikuluko honen arabera erakunde erabakitzaileak erabaki beharreko kargatze-azpiegiturak edo gasa hornitzeko guneak sortzeko proiektuari buruz.

Herri-errepideetan, aparkalekuak eremu publikoan markatuak direnean eta ibilgailu ibilgailu elektrikoak kargatzeko tresnez horniturik, leku horien guztiak gutieneko ehuneko bat, goragoko unitatera emendatua, mugikortasun urriko pertsonentzat helgarria da, leku hori edo horiek haien erreserbatuak izan gabe. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko aparkatzeko lekuen aitzin-hornidurak betebeharrak hori kontuan hartzen du. Helgarri diren lekuen ehunekoak ministerio erabaki bidez finkatzen da.

Lehenbiziko paragrafoan aipatu eskumena eskualdatu bazaie herriarteko lankidetzak-erakunde publikoei, horiek eskumena baldin badute antolamenduan, energia-galdeen menperatze ekintzen sostenguan edo igortze kutsakorren edo berotegi-efektuko gasen murrizketan, edo eskualdatu bazaie L. 2224-31 artikuluan aipatu elektrika-banaketa sare publiko baten aginte antolatzaileei, edo Garraio Kodeko L. 1231-1 artikuluan aipatu mugikortasunaren aginte antolatzaileei, edo Ile-de-Francen, kode bereko L. 1241-1 artikuluan aipatu aginteari, tituludunak garapen gida-eskema bat apaila dezake publikoari irekiak diren ibilgailu elektriko eta ibilgailu hibrido kargagarri azpiegiturretarako, Energia Kodeko L. 353-5 artikuluen arabera. »

Obratu eskemak erakutsi du lurralde osoan IEKak hedatzeko herriaz gaindiko ekimenaren antolatzeak interesa baduela. Herriaz gaindiko ekimen horri esker bermatu daiteke:

- Estaldura geografikoa eta kargatze-terminaletarako egokiak diren indar hautuak, erabiltzaileen konektibitate-esperientzian eragin zuzena dutenak;
- Kargatze-terminalen sarearen teknologia eta prezio harmonizazioa, erabiltzaileendako IEKA sarearen helgarritasunean zuzenki eragina duena;
- Finantza eta teknika aldeak optimizatzea, inbestimendu eta funtzionamendu operazioak mutualizatuz, eredu ekonomikoan zuzenean eragina ukanez (eskala-ekonomiak), eta, horrela, IEKA sarearen iraunkortasunean eta erabiltzaileen kargatze prezio finkoan eragina ukanez;
- Koordinazio eraginkorra lurraldeko beste IEKA antolatzaileekin, eta bereziki obralaritza pribatuek IEKA hedatzen dutelarik (adibidez: supermerkatuetan, autobideko zerbitzuguneetan, ...);
- IEKA sarearen hedapenaren plangintza koherente eta koordinatua denboran zehar, IEKA sarearen erabilera, beste antolatzaileen instalazio-proiektuak, bilakaera teknologikoa eta erabiltzaileen beharrak kontuan hartzen dituen lurralde ikuspegiaren bidez.

Herriaz gaindiko ekimen bat plantan ezartzea lurralde mailako elkartasun behararekin bat egiten du, zerbitzua eskuratzeko berdintasuna bermatuz, eta alde hori azpimarratu du jaun prefetak IEKAGERi buruzko abisuan.

Bizkitartean, ez du Mugikortasun Sindikatu edo bere zerga-sistema duen departamenduko HELEP bakar batek ekimen hori bere lurraldean eramateko xedea agertu, beraz, TE64ko Bulegoak, teknika eta ekonomia azterketa baten ondoren, ontzat eman berri du Sindikatuak eraman dezan proiektu egituratzaile hori departamendu mailan.

Beraz, herriari galdutua zaio iritzia ematea IEKAREN eskumena TE64ri eskualdatzeki buruz, LKKOren L.2224-37 artikuluko xedapenen arabera.

Herriak IEKA eskumena TE 64ri eskualdatzen badio araudietan finkatu baldintzetan, honek proiektuaren obragintza bermatuko du, jakinez alor horren esku hartzeko, TE 64k finkatu egin-moldea kontzesiboa den Zerbitzu Publiko Ordezkaritzarena dela.

Horrek erran nahi du ondoko ordezkariek elkargoaren ordez bermatuko duela inbestimendua, zerbitzua ustiatuko duela (mantentze teknika, gainbegiratzea, elektrizitatearen ordaintzea), eta erabiltzaileak ordaindu beharreko kargaren prezioaren bidez ordainduko duela bere burua. Beraz, elkargoak ez du diru aldetik proiektu horretan parte hartuko.

Dagokion prozedura 2024ko sartzean abiatuko da, eta emanak diren epeen arabera, 2025eko apirilean emanen da ordezkaritza, eta horri esker aurreikusi hedapenaren parte handi bat 2025. urte bukaera gabe hasten ahalko da.

Eskumen-eskualdaketa baldintzak TE64ko Sindikatu Batzordeak ontzat eman ditu 2024ko buruilarren 17an eta hitzarmen batean ezarri, IEKAre eskumena eskualdatzeko eta betetzeko teknika, administrazio, lege eta finantza baldintzak finkatzeko, eskumena hitzarmen honi atxikia baita.

Herriko Kontseiluak,

Datu publikoen gobernamentu open data plataforman (www.data.gouv.fr) argitaratu IEKAGere edukia ikusirik, Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko xedapenak ikusirik eta bereziki L.2224-37 artikulua, TE64ren estatutuak ikusirik, eta bereziki 2.f) artikulua

IEKAre eskumena eskualdatzeko eta betetzeko teknika, administrazio, lege eta finantza baldintzak aplikatzeko hitzarmena ikusirik, (honi atxikirik),

Kontuan izanik herriarentzat duen interesa TE 64ren aldeko eskumen-transferentzia horrek, herria departamenduko mugikortasun elektrikoaren bide-orrian sartzeko parada emanez,

Deliberatu ondoan,

- **ONARTU** du “Ibilgailu Elektrikoak eta Hibridoak Kargatzeko Azpiegiturak” eskumena PIRINIO ATLANTIKOETAKO ENERGIA LURRALDEARI (TE64) eskualdatzea zerbitzu bat sortzeko horrelako ibilgailuetarako beharrezkoa den IEKA azpiegituren sortzeko, mantentzeko eta ustiatzeko, ekipamenduak elikatzeko beharrezkoa den elektrizitatea erostea barne hartuz.
- **ONTZAT eman** du PIRINIO ATLANTIKOETAKO ENERGIA LURRALDEAK (TE 64) IEKA herriko lurraldean instalatzeko printzipioa, IEKAre eskumena eskualdatzeko eta betetzeko teknika, administrazio, lege eta finantza baldintzak aplikatzeko hitzarmenean finkatu baldintzetan,
- **ZEHAZTU** du delibero hau TE64ko lehendakariari jakinaraziko zaiola,
- **MANDATUA ematen dio** jaun auzapezari eskumen-eskualdaketa obratzeko eta IEKA herrian plantan ezartzeko beharrezkoak diren dokumentu oro izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

2-2024-62 DELIBEROA – GEURETIK SORTUAK PROIEKTUAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA - 2025/2026 EDIZIOA – 7.5.2 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak irakurri du Udalbiltza elkartearen proposamena “Geuretik sortuak” proiektuari buruz. Mugaz gaindiko proiektu kultural hori Euskal Herriko hogeita hamar bat herritan iraganen da 2025 eta 2026 artean, BAIGORRIIn barne.

Geuretik sortuak proiektuaren helburua da euskarazko literatur, antzerki eta zinema-ekoizpena sostengatzea. 2025. urtea prestaketa urtea izanen da, 2026. urtea obren hedatzeko urtea.

Sorkuntza artistikoan (literaturan, zineman, antzerkian) ari diren hogeita hamar bat artistak obra bat eginen dute ondoko urtean hedatuko dena proiektuaren kide diren herri guzietan.

Aitzineko edizioaren bilana eginen da eta proiektu deialdi bat argitaratuko artistentzat eta eragile kulturalentzat.

Herriak artistak errezibituko ditu eta lotura eginen Baigorriko herritarren eta elkartearen artean bere obraren sortzeko (egonaldia).

- kultur agenda bat plantan ezarriko da Urepeleko eta Ortzaizeko herriekin

- Proiektuaren komunikazioaz arduratuko da

- finantzamendu orokorra lagunduko du (zenbatekoa berantago finkatu beharko da)

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONTZAT eman du** “Geuretik sortuak” proiektua.
- **ONARTU du** finantzamendua (zenbatekoa berantago jakinaraziko da)
- **ARDURA eman dio** jaun auzapezari urrats guzien betetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

3- 2024-63. DELIBEROA- HERRIAN BEROTZE SARE BATEN SORTZEA ETA USTIATZEA (ENERGIA BERRIZTAGARRIA) – KUDEAKETA-MOLDEAREN ONARTZEA – 5.7 NOMENKLATURA

Egingarritasun-ikerketa baten ondotik, Baigorriko Herriko Etxeak Zerbitzu Publiko Ordezkaritza bat uztekoa dio Ipar Euskal Herriko Antolamendurako TSPri, bere lurraldean zura/energia berotze-sarea sortzeko eta ustiatzeko.

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko xedapenen arabera, Herriko Kontseiluari doakio plantan ezartzekoa duen kudeaketa-moldea erabakitzea berotze sarearen sortzeko eta ustiatzeko.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari irakurri dio atxikirik den kudeaketa-moldeen aurkezpen-txostena herrian berotze-sare baten plantan ezartzeko.

Txosten horrek erakusten duen bezala, kudeaketa-molde egokiena ordezkaritzan eman kudeaketa da, Ipar Euskal Herriko antolamendurako TSPrekin zerbitzu publikoa emateko kontratu baten kariatara.

Ipar Euskal Herriko antolamendurako TSPri utziko zaizkion zerbitzuen ezaugarri nagusiak hauek dira:

Egituren finantzamendua eta eraikuntza:

- o Berotze ekoizpenerako (zura/energia eta sokorri-gailu sistema);
- o Berotze hedapenerako eta banaketarako;

Egituren eraikitzeke eta ustiatzeko behar diren administrazio-baimen guziak kausitzea;

Dirulaguntzak galdatzeko dosierrak muntatzea eta kausitu dirulaguntzak integratzea;

Zerbitzua osatzen duten egitura guziak ustiatzea, mantentzea eta berritzea;

Emitza eta zerbitzu kalitate xedeen finkatzea eta horiekiko engaiamendua;

Merkataritza-kudeaketa, arrisku guziak bere gain;
Berotasuna abonatuari hornitzea eta abonamendu-kontratuen izenpetzea;
Dagokienei jakinaraztea kontzesio denbora guzian;
Kontrol eta gaztigu moldeak;
Kontzesioaren kudeaketaren gardentasuna.

Kontratuaren iraupena 25 urtekoa izanen dela aurreikusia da.

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L.3211-1 artikularen eta ondokoen xedapenen arabera, esleipen hori publizitaterik eta konkurrentzian ezartzerik gabe egin daiteke kudeaketa irizpideak beteak izanez gero.

Herriko Kontseiluak,

Energia aurrezteko eta beroa erabiltzeko 1980ko uztailaren 15eko 80-531. legea ikusirik,

Lurralde Elkargoen Kode Orokorra ikusirik, eta bereziki L.2224-38, L.2121-29 eta L.1411-1 legeak eta ondokoak,

Eskaera Publikoaren Kodea ikusirik eta bereziki kontzesioei buruzko hirugarren partea,

PIK Ingénierie ikerketa-bulegoak egin egingarritasun-ikerketa ikusirik, zur-berogailu bidez hornitu berotasun-sare baten sorkuntzari buruzkoa,

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L. 1411-4 artikuluko xedapenen arabera delibero honi atxiki txostena ikusirik, zeinak kudeaketa-moldeak eta kontzesionarioak bermatu beharko dituen zerbitzuen funtsezko ezaugarriak aurkezten baititu,

Lurralde Batzorde Sozialaren 2024ko ekainaren 27ko aldeko iritzia ikusirik,

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluari galdegin zaio,

- **ONTZAT ematea** Zerbitzu Publiko Ordezkaritzaren printzipioa kontzesio moldean, Ipar Euskal Herriko Antolamendua – TSPrekin berotze berriztagarri sarearen sorkuntzarako, ustiapenerako eta kudeaketarako,
- **ONARTZEA** ordezkariek bermatu beharko dituen zerbitzuen ezaugarri nagusiak, atxikirik dagoen kudeaketa-molde hautuaren txostenean zehaztuak diren bezala,
- **BAIMENA ematea** jaun auzapezari Zerbitzu Publiko Ordezkaritzaren plantan ezartzeko behar diren neurri guztiak hartzeko,
- **BAIMENA ematea** jaun auzapezari edo haren ordezkari delibero honen betetzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

4- 2024-64. DELIBEROA – IPAR EUSKAL HERRIKO ANTOLAMENDUAREN TOKIKO SOZietate Publikoaren Kapital Sozialean Parte HARTZEA – 7.9 NOMENKLATURA

Ipar Euskal Herriko antolamendua eta ekipamendua laguntzeko, zuzeneko kudeaketan egiten dituen jardueren osagarri gisa, Lurren Tokiko Erakunde Publikoak (LTEP) edo alokatzaile sozialek, Euskal Hirigune Elkargoen kide dituen herrietarik 17k eta Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak (IEHAMS) Tokiko Sozietate Publiko (TSP) bat osatu dute. Honek antolamendu operazional eta eraikuntza eginkizunak betetzen ditu bizilekuaren, ekipamendu publikoaren, jarduera ekonomikoen guneen, ingurune naturalen antolamenduaren arloan.

Ipar Euskal Herriko Antolamendurako TSPak, 225.000,00 €-ko kapitala du eta egoitza Maréchal Foch etorbidea, 15, 64100 Baiona helbidean kokatua du eta Baionako Merkataritza eta Sozietateen erregistroan matrikulatu zen 2023ko agorrilaren 18an.

TSPren kapital soziala 19 akziodunen artean partekatua da, Euskal Hirigune Elkargoa eta Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatua barne.

Bere estatutuen arabera, TSPren xedea da bere akziodunen eskumenen alorrean antolamendu, eraikuntza eta zaharberritze/birkalifikazio operazioak ikertzea, diseinatzea, burutzea eta ustiatzea edota kudeatzea.

Akziodun boluntaristak eta funtzionamendu ona bermatzeko prest, Ipar Euskal Herriko Antolamendurako TSP harro egon daiteke, 12 hilabeteko existentziaren ondotik, 60 proiektu baino gehiagoko plan-karga handia baitu orain.

Azken urtean, Ipar Euskal Herriko Antolamendurako TSPk eraman ekintzei esker sozietatea administrazio, teknika eta finantza mailan molde iraunkorrean finkatu ahal izan da eta, aldi berean, akziodunek eman proiektu guztiak lagundu dira jarduera aurrekontua garatuz.

Sortu zenetik, obraginek behar zutenari ihardesteko bai eraikuntzari, bai antolamenduari begira, bai hiriko bero-sareei eta berritze energetikoari dagokienez, izenpetu kontratu kasik guztiak obragintza laguntzak edo finantza-mandatuak dira.

Akziodunekiko harreman mota horrek ez du egitura ekonomikoki inplikutzen, hau zerbitzu hornitzaile da obragin diren elkargoentzat.

Gaur egun, TSPren kapitalak ez dio parada uzten behar bezain helduak bilakatu diren antolamendueremuetarako kontzesio-kontratuak egitera, ez eta herri-eskumenaren sostengatzeko ere, hiriko bero-sareak inbestituz eta ustiatuz, ELENA programa obratzean pentsatu zenaren arabera. Alabaina, antolamendukontzesioetarako edo hiriko bero-sareetarako finantza-eramatea bermatzeko, bankuek funts propioak galdatzen dituzte haien eta haien arrisku-mailaren arabera.

Alta, esku hartze molde horiek beharrezkoak dira:

Ipar Euskal Herriko Tokiko Bizileku-Programaren (TBP) xedeak obratzeko, eta oro har, lurralde garapena kontrolatzeko borondate publikoak obratzeko, honek antolaketarako ekintza publikoak azkarki garatzea galdatzen baitu.

Energia-trantsizioaren alorrean eta klima aldaketaren erronkei eta Ipar Euskal Herriko Lurraldeko Klima Aire-Energia Planaren (LKAEP) helburuei ihardesteko, lurraldean berritze energetikorako proiektuak eta energia berriztagarriak garatzeko proiektuak masifikatzen parte hartuko du egin molde berriei eta esku hartzeko tresna eraginkorrei esker.

Bestalde, Ipar Euskal Herriko herri berri batzuek, oraino TSPren kide ez direnek, eta, beraz, ezin dutenek hori erabili herri-eskumeneko proiektuetarako (adibidez, hiriko bero-sareetarako), edo haien garapen-proiektuetarako, akziodunen parte izateko xedea adierazi dute.

Izpiritu berean, TSPren esku hartzeari esker BIL TA GARBI Sindikatuak jakinarazi beharrei ihardesteko parada emanen luke.

Beraz, Ipar Euskal Herriko Antolamendurako TSPren garapena eta ekintzak lurraldearen zerbitzura laguntzeko, behar dira kapitala eta akziodunak aldi berean emendatu, haren sorreran finkatu helburu politikoei ihardesten dien gobernantza molde bat irukidatuz.

Beraz, pentsatu da:

TSPren kapital soziala emendatzea 100 €ko 28 840 akzio berri sortuz, kapitalaren zenbatekoa 3 109 000 €-tara ekarriz;

Hastapeneko akziodunen lehentasunezko harpidetza-eskubidea ez erabiltzea;

Euskal Hirigune Elkargoaren parte hartzea emendatzea aipatu kapitalean, hots, 2 863 000 € gehiago 28 630 akziorako, bere parte hartzea 3 000 000 €-koa izateko (30 000 akzio);

BIL-TA-GARBI Sindikatuak parte hartzea aipatu kapitalean 15 000 €-ren truke, hots, 150 akzio, baita ere ordezkari bat izendatzea Sindikatuen Kontseiluan;

Baigorriko herriak parte hartzea aipatu kapitalean 2 000 €-ren truke, hots, 20 akzio, baita ere ordezkari baten izendatzea Biltzar berezian;

Beskoitzeko herriak parte hartzea aipatu kapitalean 2 000 €-ren truke, hots, 20 akzio, baita ere ordezkari baten izendatzea Biltzar berezian;

Makeako herriak parte hartzea aipatu kapitalean 2 000 €-ren truke, hots, 20 akzio, baita ere ordezkari baten izendatzea Biltzar berezian;

Estatutu berrien eta akziodunen itun berriaren onartzea,

Administrazio Kontseiluaren osaketa aldatzea: Euskal Elkargoak 11 ordezkari atxikiko lituzke, IEHAMSen egoitza kenduko litzateke, Biltzar bereziak 7 aulki lituzke;

Biltzar Bereziaren osaketa aldatzea, akziodun berri bakoitzeko ordezkari berri bat eta IEHAMSrako ordezkari bat izendatuz, bi biltzarren sortzea barne: herrientzat 6 ordezkariz osatu biltzarra AKn eta Sindikatu mistoentzat 1 ordezkariz osatu biltzarra;

Akziodunen bozkatzeko-eskubideak aldatzea Batzar Nagusian;

Egungo akziodunen partaidetza desagitea, Euskal Elkargoarena salbu.

2024ko ekainaren 27ko deliberoaren bidez, TSPren Biltzar Nagusiak bide-orri bat onartu zuen eta haren obratzeak helburu horiei ihardesten die.

Bide-orri horren lehenbiziko etapan akziodun ez diren elkargoek deliberatu behar dute TSPren kapital sozialean sartzeko xedea dutenez eta beren exekutiboari baimena emateko xedea, sozietatearekin kapitalean sartzeko moldeez eztabaidatzen hasteko (kapitalaren zenbatekoa, bozkatzeko eskubidea, organismoetako ordezkari kopurua, etab.).

Baigorri, Beskoitze eta Makeako herrien kasua da, 2024ko uztailaren 15ean, 2024ko buruilaren 17an eta 2024ko buruilaren 24an eztabaidatu baitzuten hurrenez hurren.

BIL TA GARBI Sindikatuaren kasua ere da, 2024ko uztailaren 17an deliberatu baitzuen.

TSPren Administrazio Kontseiluak 2024ko urriaren 3an deliberatu zuen kapital sozialaren emendatzeko eta akziodun berrien sartzeko moldeak zehazki finkatzeko. Kapitalaren emendatzeari buruzko txostena egin du Administrazio Kontseiluak, TSPko kontu-mandatariaren txosten bat, TSPren estatutu-proiektua eta akziodunen hitzarmen-proiektua aurkeztu zaizkie administratzaileei.

Kapital soziala integratu nahi duten elkargoek berriz deliberatu beharko dute, bereziki, beren parte hartzearen zenbatekoa zehazteko, TSPren estatutu berriak onartzeko eta akziodunen hitzarmenarekin bat egiteko, Administrazio Kontseiluaren txostenaren eta kontu-mandatariaren arabera. Erabaki honen gaia da.

Jadanik akziodun diren elkargoek elkargo-taldeek deliberatu beharko dute ere kapital sozialaren emendatzea onartzeko eta akziodun berriak kapitalean sartzea onartzeko baita ere Euskal Elkargoaren parte hartzearen emendatzea onartzeko.

TSPren Ezohiko Biltzar Nagusiak eztabaidatuko du ondotik, dokumentazio sozialaren aldaketa eta kapital sozialaren emendatzea behin betiko ontzat emateko. Helburua da Ezohiko Biltzar Nagusiak 2024 bukaera gabe deliberatzea.

Gorago zehaztu prozesu deliberatzailearen ondotik, TSPk egoki den hitzarmen oro egiten ahalko du kasik zuzeneko kudeaketan, eta bere kideen proiektuen obratzeko beharrezkoak diren higigarri, higiezin, herritar, merkataritza, industria, legezko eta finantza ekintzak egiten ahalko ditu gai sozialarekin bateragarri badira.

Ikusirik Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra, eta bereziki L. 1531-1 artikulua eta L.1522-1 eta ondokoak;

Ikusirik Merkataritza Kodea, eta bereziki 225-1 artikulua eta ondokoak,

Ikusirik gorago aipatu deliberoak;

Ikusirik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren oraingo estatutuak eta estatutu berrien proiektua

Ikusirik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren oraingo akziodunak eta akziodun-itun berriaren proiektua,

Ikusirik Administrazio Kontseiluaren txostena Ezohiko Biltzar Nagusian;

Ikusirik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren kontu-mandatariaren txostena;

Ikusirik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren Ezohiko Biltzar Nagusiaren deliberazio proiektua

Txostengilea entzun ondoan,

Kontuan harturik TSPk eskubide pribatuko enpresa baten abantailak dituztela, eta, beraz, antolaketa malgua akziodun publikoek kontrolatzeko segurtamenarekin.

Kontuan harturik TSPk bere aktibitateak betetzeko eginbidea duela bakarrik bere akziodunentzat lurralde elkargoen eta kide diren lurralde elkargo multzoen lurraldean;

Kontuan harturik lurralde elkargoek eta akziodun taldeek biltzar-kontrola betetzen dutela TSPren gainean, beren zerbitzuetan betetzen dutenaren gisa berekoa;

Kontuan harturik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren garatzeko eta aktibitatea iraunkor egiteko xedea;

Kontuan harturik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren akziodunen xedea dela akziodun berriei parte hartzeko parada ematea, bereziki kapital soziala emendatuz eta akzio berriak sortuz, eta Euskal Hirigune Elkargoaren parte hartzea emendatuz;

Kontuan harturik hastapeneko akziodunek ez dutela erabili nahi beren lehentasunezko harpidetza-eskubidea akzio berriak sortuz kapital sozialaren emendatzeko eta horrek dakartzan ondorioak;

Kontuan harturik BIL TA GARBI Sindikatuak Biltzar Bereziko Sindikatuen Kontseiluan ordezkari bat ukaitea galdatu duela;

Kontuan harturik Baigorriko, Beskoitzeko eta Makeako herriek Biltzar Berezian ordezkari bat ukaiteko xedea;

Kontuan harturik Biltzar Bereziko Administrazio Kontseiluaren osaketa aldatzeko beharra;

Kontuan harturik akzio baten balioa 100 €-koa dela, parteek hala estimaturik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren jardueraren arabera;

Auzapezak proposaturik, Herriko Kontseiluak

Deliberatu ondoan,

ONARTU ditu Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren estatutuak,

ONARTU du Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren akziodunen hitzarmena,

SUSKRIPZIOA hartu du Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoan 100 €-ko 20 akzio berri erosiz, akziodunek erabaki kapital emendatzearen ondotik sortuak, beren lehentasunezko eskubidea erabili gabe;

ERREGISTRATU du 2 000 €-ko zenbatekoa aurrekontuan;

IZENDATUKO du zuzeneko ordezkari bat Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren Biltzar Berezian.

Hautagai hauen berri ukan ondoan: Jean Paul Bibes eta Antton Curutcharry jaunak,

Arauzko bozkak egin ondoan,

JAKINARAZI du bozketaren emaitza:

- o bozkatu ez duten baina hor zeuden kontseilarien kopurua: 0
- o bozkatzaileen kopurua: 14
- o abstentzio kopurua: 0
- o bozkatu dutenen kopurua: 15
- o gehiengo absolutua 15
- o alde: 15
- o kontra: 0

ADIERAZI du TSPko Biltzar Bereziko ordezkariak hauek direla Baigorriko:

- o Jean Paul BIBES jauna
- o Antton CURUTCHARRY jauna

BAIMENA eman dio auzapezari horretarako beharrezkoak diren desmartxa ororen egiteko eta beharrezko dokumentuen izenpetzeko, bereziki suskripzio orria;

Ahalmen osoa EMAN dio jaun auzapezari delibero honen gauzatzeko neurri oro har dezan.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

5-2024-65. DELIBEROA - LEHENGOTRENTZIK IRAGATEN DEN LEIZPARTZE- EIHARLDEKO DESBIDERATZE PROIEKTURAKO IKERKETA ABIAN EZARTZEKO GALDEA DEPARTAMENDU KONTSEILUARI – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak “Baigorriko saihebidia” dosierraren historia aurkeztu du, bereziki Onura Publikoko Aitorpena (OPA) bukatu denez geroztik, 2019ko abenduan.
2020az geroztik, gai horri buruzko eztabaida bizirik egon da (egoiliarren, errepidearen erabiltzaileen eta profesionalen galdea), eta herriak desmartxa bat baino gehiago egin ditu Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluari (gutunak, hitzorduak) herriko saihebidetaren bukatzeko zer segida ematen ahaliko den ikusteko, 2009an finkatu lehen proiektuan aurreikusi bezala eta 2019an oraino bururatua ez zena.

2023ko abenduaren 22an, Baigorriko auzapezak eta haren axuantek Euskal Mendiko kantonamenduko departamendu kontseilari den Trounday anderea errezibitu zuten eta Echeverria jauna, errepideez arduratzen den kontseilari ordezkaria, gai horri buruz hitz egiteko eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluaren ikuspuntua ezagutzeko. Hitzordutik, bi emaitza atera dira:

1. Saihesbidea bukatzeko proiektu oro proiektu berria izanen da, eta ez lehengo proiektuaren bururatzea, OPA bururatzeari bukatu baitzen. Beraz, proiektu berria da eta prozedura berria behar du.
2. Saihesbide proiektu oro Herriko Kontseiluan deliberatu behar da eta auzapezaren gutuna ere behar da.

Iritzi politiko guzietan boz bidez adierazteko parada uzteko, proposatu da hiru boz proposamen aurkeztea:

1. proposamena: Saihesbidearen ikertzeko ALDEKO boza, deliberaren izenburuan aurkeztu denaren arabera: "Lehengo trenbidetik iragaten den Leizpartze-Eiheralde desbideratze proiekturako ikerketa abiatzeko galdea Departamendu Kontseiluari".

2. proposamena: Saihesbidearen ikertzeko KONTRAKO boza, deliberaren izenburuan aurkeztu denaren arabera, baina ikerketa laburrago baten ALDE, Eiheralde auzoko saihsbiderako bakarrik.

3. proposamena: Saihsbide proiektu ororen KONTRAKO boza.

Beraz, Herriko Etxeko taldean luzaz eztabaidatu ondoan 2024. urtean, alde batetik, eta Leizpartze-Eiheraldeko eta Bortzirietako-Otikoren auzoetako egoiliar elkarteak kontsultatu ondoan, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKI** du lehengo trenbidetik iragaten den Leizpartze-Eiheraldeko desbideratze proiekturako ikerketa galdeari (1. proposamena) aldeko iritzia ematea.
- **ONARTU** du Departamendu Kontseiluari galdatzea Eiheralde eta Leizpartze auzoak saihesteko ikerketa abiatzea
- **ARDURA** eman dio jaun auzapezari Departamendu Kontseiluari galde hori aurkezteko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 14
1. proposamena: 9 ALDE
2. proposamena: 5 ALDE
3. proposamena: 0
ABSTENTZIOAK: 1

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

- Kredituen biramendua 2024ko urriaren 29an

Gai orotarik: /

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOUSQUES Bernadette anderea, OLÇOMENDY Betti jauna

. Bilkuran hartu deliberoak 61etik 65era zenbakiak ziren.

Auzapezaren izenpea :

Signature du secrétaire de séance :



2024ko azaroaren 5eko bilduma